OTOK ZAHARRA ETA EKATZAK BERRIA

Hitz horiexek esanaz botatzen du umeak bere hortz txiki, bigun, ustel, eroria, sutara. Erraz eskatzen dio haurrak hori suari, bai bait daki lehengoa baino gogorragoa, haundiagoa eta iraunkorragoa jaioko zaiola berria.

Horixe berbera eskatuko genioke gabon enborrari urtearen bukaeran: «otok urte zaharra eta ekatzak berria». Ez jakin, ordea, hobea izango denik.

Osasuna, jana, etxea, ibilpidea eta beste izan ditugu ordu gutxi barru amaituko den urtean. Gutxiagorik ere bazukean batek baino gehiagok. Halere bada urtearekin batera desegitea nahiko genukeen gaitzik.

Gero eta haundiagoa egiten ari den dirudunen eta dirugabeen arteko koska izkutatzea nahiko genuke; nagusien eta langileen arteko tirabirak zuzentzeko legemolde egokia sor dadila; gizartearekiko hauzi-mauzi guztietan herriak parte hartzeko bidea izan dezala; lanik eza buka dadila; ikaspideak eta kulturbideak denentzat irekiak egon daitezela; gizonaren eta herrien eskubideak behar bezala aitortuak gerta daitezela; gizon eta herri bakoitza bere buruaren jabe izan dadila; bakoitzak bere iritzia agertzeko, eta bestekin biltzeko eta elkartzeko duen eskubideari ateak zabal diezazkiogula...

Hori guztia eta gehiago eskatuko genioke gabon enborrari urte zaharra sutara botatzerakoan. Izan ere urte beltza izan da ia amaitu zaigun urtea. Gero eta beltzago egin zaigu, gainera. Beltzez aspertu eta ikaratu gaitu.

Jaloko den berria ez da zuriagoa izango, ordea. Beltzagoa izateko arriskua du. Izan ere zail da guraso beltzetatik ume zuria jaiotzea, beltzgorria gehienaz ere. Beltzak eta gorriak ikusi beharrean gerta gintezke, beraz, datorren urtean.

Besteak beste, lana eta dirua urrituko dira, etxe askotan, eta, gastabideak ugalduko. Urdail gosea haserrea da. Zirt edo zart egiteko zorian jartzen du gizona goseak. Gizarteko hauziak gorbizituko dira, noski, lehenaz gainera. Asko zirikatzen den astoak maiz du ostikoa. Ostikoka hasiz gero, berriz, gogorrena eta maltzurrena ohi da nagusi.

Onez konpon daitezela hauzi guztiak nahiko genuke. Baina hori ez dago ezinean dabilenaren esku. Min duenak egiten du garrasi. Inork ez diezaioke garrasi egiteko eskubiderik ken. Ahoa estaliaz ez da minik kentzen.

Konpon-bideak, zuzen-bideak behar ditugu. Okerbidetik okerra besterik ez daiteke gerta.

Bihurgune asko zuzentzeko bideak nahiko genituzke datorren urtean. Elkarrizketarako bideak irekitzea nahiko genuke.

1974garrengo urtea baino hobea nahiko genuke 1975garrengo urtea.

Horretarako, berriz, besteak beste barkamen osoa eskatzen dugu zigortu guztientzat Gotzaiekin batera.

Agur Urte Zahar. Ongi etorri Urte Berri.

BOURASSA PARISEN

Interesgarriak izanik ere, nork irakurri ditu Bourassak Parisen esandakoak?

Frantzian izana da Abenduaren 3, 4 eta 5ean Quebec-eko gobernu-burua; eta, A.M. Carron eta F.M. Monnet kasetariek bildurik, haren iritziak azaldu ditu xeheki «Le Monde» egunkariak (XII-3).

Robert Bourassa «federalista» da; ez, alegia, Quebec osoki bere buruz jarri eta Kanadatik zeharo bereztearen aldekoa. Bourassa, hitz batez, «moderatua» da irizpidez, erdibidekoa; eta areago izan da egun hauetan Parisen Quebeceko gehiengoaren izenean ofizialki mintzatu delarik.

Zein da erdibide epel hori, beraz?

—oOo—

Edozein «euskeromanok» baino askoz ere gogorkiago hitzegin du Bourassak. Horra sorpresa! «Oportunismoa»k eraginda omen den Quebectar honek, «esenzialista» eta «chauvinista» izenak mereziko lituzke aisa gure herrian!

Hona hemen Bourassaren birau a: «Kultur-nagusitasunaren aldeko ene politika-bidean, 22. legea da *atalik funtsezkoena*».

Zer da, bada, «funtsezko» lego hori? Honatx hemen «Le Monde»k berak azaltzen duena: «Joan den Uztailean onartua izan den 22. legeak Quebeceko *lege-hizkuntza* egin du frantsesa. Beronen erabilbideak probintziako bizi-maila askotan ikutzen du, hala-nola ekonomiarena (orain arte inglesa zen gailen), hezkuntzarena, eta are kartelgintzari buruzkoarena ere».

—oOo—

Azalpen labur honek ez du dena esaten, ezta laurdena ere. Harrigarriak dira, gonbarazio baterako, 22. lege horrek ekonomiarekiko munduaz erabaki dituenak. Hona hemen adibide bat: «Frantsesturik dauden lantegiak, edo-ta frantseskuntzan barrena abiatu bederen egin direnak. eta ez besterik, has daitezke gaur negozio-harremanetan gobernuarekin, laguntzak jasotzeko, kontratuak sinatzeko, eta abar». (Le Monde, 1/2-XII, 32. orr.). Quebeceko gobernuak, hitz batez, ez du aurrerakoan onartuko ekonomi-ataleko harremanik inglesez egitea (frantses izkribuarekin batera ingles itzulpen bat *ere* erastea» onartuko badu ere...).

Horrelako jokabide gogorrok ez hartzekotan, galdurik sumatzen dute beren burua Quebec-eko... erdi-bidearen aldekoek! (Honi guztiari buruz, ez zaio inori damutuko «Le Monde»k Abenduaren 1/2an argitara dituen 20 orrialde berezi eta mamitsuak irakurtzea).

Oso larri daude han, bai, erdibidekoak. Zeren eta, Quebectarren artean, % *78-ek* bakarrik hitzegiten baitute gaur frantsesez! Baina —diote— hauxe larria!: bulego-enplegatuen artean % 78 ez, baina % 67 baizik ez dira frantsesdunak; osagileen eta ijeneruen artean, berriz, gutxiago: % 55 baizik ez; eta 20.000 dolarretatik gora irabazten dutenen artean, % 10 baizik ez. «22 bill» horren behar gorria egoera hits horretan funtsatzen dute Bourassaren aldekoek. Erdibideko direnek, berriz diot.

—oOo—

Bourassak «kultur-segurantzia» nahi luke bere herriarentzako: «kulturaren alorrean ez dugu nahi Quebec gurea ez den gehiengo baten eskuetara erortzea. Zentzua baizik ez da bilatu behar gure nahi horretan». Ezen «guk, Kanadaren barruan frantses gutxiengoa izanik, ezin dezakegu frantses kulturaren hazkundea, gurea ez den gehiengo inglesdunaren eskuetan utz». «Kulturaren alorrean —ekin du Bourassak— kultur-nagusitasuna nahi dugu».

Horretarako, aginte-sailak berezi behar dira ongi; eta, Frantziarekiko loturak azkartuz, eskubide internazionalaren eremuan berrikuntzak ere eginez, frantsestasunari gogor eutsi.

—oOo—

«Berrikuntza» horiek, zeren arabera? Hona hemen egoera Bourassaren b e r a r e n hitzez: «Kanadako gobernu-buruak bere eskuetan du erresumaren defentsa edo *gerizabidea;* Quebecekoak, berriz, *hezkuntzaren arazoak*. Nor bere sailean edo baranoan, horretara, nagusi eta libro dira bi agintaritzko» (=ils sont souverains).

Quebectarrak, jakina denez, bost miloi dira. «Bigun»tzat jotzen dute Bourassa bertako abertzaleek; eta René Levesque-ren Alderdiak («séparatiste») % 30 boz atera zituen azkeneko hauteskundeetan, 1 9 7 3ko udazkenean. Askok uste du, hortaz, Quebecen Bourassa «katu epel» bat baizik ez dela...

—oOo—

Halaz ere, gure hizkuntzaren eta gure herri-nortasunaren egoera mila aldiz larriagoa izanda, «euskeromano» deitzen gaituzte «euskaltzale» (???) batzuek. Eta zenbaitek, xeru-xeru, hala dela sinesten!

Noiz arte?

LARRESORO



GURE ESKUALDEKO HIRIGINTZA

Munduko pakeari eustearen onduren, gaur egunean gizarteari aurkezten zaion arazorik latzenetakoa da hiri-eraketa.

Gaurko gizartearen itxuragabeko handitze eta ugaltzeak janari eta beste zenbait arazoz gainera, bizitokiaren beharra berehala erakusten digu.

Eta alderdi hau gogor eta kezkatia bada batzuentzat, guretzat bi bider dela aitortu behar, gure lurraldearen izaera bereziak irtenbideen ordez oztopoak eskeintzen dizkigulako.

Gaurko gure Administrazio eraketa erdiruntz zuzendua dago, baina aurrera begira banaketa baten premia larria dagoela aitortzen guztiak bat datoz.

Aldi bateko hiriari buruzko iritzia aldatu beharrean gaude, hiri handiekin loturik egongo diren giza-auzotegi berezi eta egoki batzuk eraikitzeko bideak ipintzen saiatuaz. Eta honetarako eskualdeen indartze eta baliatze batetara jo beharko dugu.

Lurren sakabanatze egoki eta hiriak beren harremanetarako beharrezko dituzten bideen hobeagotze bat izango dira eskuarte indartze politika honen helburuak.

Eskualde bat osatu eta bereizteko behar diren osagai batzuk hauk dira.

—Joan-etorrirako bide erosoak.
—Industri bilketak.
—Landak hiriztatzea.
—Nekazaritza teknikatu.
—Zerbitzuak ugaldu.
—Lur sailak eratu.
—Herri eta hirien arteko sarea josi...

Osagai hauek geure inguruari ezartzen badizkiogu, Euskal Herriak eskualde-aurre bat osatzen duela laster jabetuko gara.

Eta lurralde honetan zoru libre eskasia, zerbitzu eraketa ahula, inguru-giro zeharo kutsatua, e. a. erantzun larri baten eske ditugu.

Egoera honek jarraitzea, berehala asetuak ditugu zenbait herrialde, horregatik bada eskualde mailan eginiko antolaketa bat behar beharrezkoa zaigu. Sortuak dauden edo sortarazten diren herrialdeen arteko haremanetarako bideketa egoki bat aurrez eratu beharko da. Bestalde industri hazkuntza neurritsu eta hiri inguruak arinduko dituen antolaketa bateruntz jo beharko litzateke.

Helburu guzti hauei erantzun jator bat eskeintzekotan ez gintezke probintzia bakoitzeko mugari begira, igaro zinezko hesiak balira bezala, gelditu, baizik eta begirada motz hau gaindituz, eskualde mailan irtenbideak bilatzen saiatu behar dugu.

Euskal Herriaren etorkizunak, guztiok kezkarazi behar gaitu. Gipuzkoa eta Bizkaia beste zenbait probintziakiko sailketan sartuaz gro beherakako joeran doazela dakusagu. Dirua, teknika eta espezializazioa neurri baten edukiarren, behe-estruktura moldatu gabe eta zoru eskasi handi bat dugularik beste zenbait arrazoiren artean, gure probintzietako emankortasuna urritzen ari da, beraz, Administratibu eraketa berri baten premia bizian aurkitzen gara.

Nola Bilbok ala Donostiak badute zer eginik eta zer zuzendurik hirigintza aldetik: erreken zikintasuna, zoru eskasia, joan etorri edo zirkulazioaren asetasuna...

Denenak diren arazo hauen oinarria eskualdeen artean dagoen haremanen ondorio bada, zergatik ez denon artean erantzun eta erabaki?

Eskeintzen zaigun behe-estruktu-rarekin, eskualdea osorik hartuaz, —eta eskualdea esatean Euskal Herri osoa adierazi nahi dugu— ahalmen eta aurrerapen ekilibratu baten itxaropena eduki dezakegu, bestela galbidera zuzen zuzenean goaz.

Egungu eskualde bakoitza itsu itsuan bakarka doa. Zenbait arazo eta behar guztiei aurkezten zaizkiela eta danak batera erantzun osoago bat eman diezaiekeela ohartu gabe.

Reforma del Regimen Local edo deritzan lege bat aurrera bidean doala dirudi, baina gure premiei erantzungo dien ustea izatea eta itsuak garela aitortzea bat litzateke.

Erdiruntz eta gehiegizko bulegokrazi bati begira egon beharrean, geure aldetik garaiz eta argi eta garbi geure eskualdeko arazoei erantzungo dien hiri zerbitzu eta erakunde batzuetara jo behar dugu.

Garai bateko erdiratze joerak, pixkanaka akats eta erantzun ezin gehiago dagerizkigu, eta, hori dela bide, gaur egunean berriro banaketara goaz, eta, pixkanaka ugariago diren arazoei eskualde mailan erantzun errazagoa eskeiniko den itxaropenean zenbait frogaketa ari dira egiten munduan eta batipat Merkatu Batua osatzen duten erresumen artean, eta nahiko fruitu onak ematen ari dela aitortu behar.

Beraz, Europako ateetan dagoen Euskal Herriak, lehen esa dugun bezala eskualde-aurre bat osatzen badu, bere buruari eta arazoei osoki berak erantzungo dien eskualde osatu bat eratzen saiatu behar du, guztiok ditugun ahalmen eta indarrak batu eta horretara zuzenduaz.

Antton Ibarguren

Zeruko ARGIA

Zuzendaria:
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa, Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoek argitaratua, (Kale Nagusia, 50-1.° Burlada - IRUIÑEA).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 41 95 88

ARPIDE SARIA:

Barruan	350 pezeta
Korreo batasunetako herrietan	400 pezeta
Atzerrietako beste herrietan	420 pezeta
Airez	Aldez aurretik galdetu
Salmenta (ale bakoitza)	8 pezeta

Moldiztegia eta Idazkola: «Gráficas Navasal» A. Adoain, 1. IRUIÑEA
D.L.: NA. 80-1963